

**EUSKADIKO
EROSKETA ETA
KONTRATAZIO
BERDEAREN
2030EKO
PROGRAMA**

2024KO JARRAIPEN- TXOSTENA



Txosten honetan Ihobek, Ingurumeneko Euskal Agentziak, EAEko 2030eko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren idazkaritza tekniko gisa egindako jarduerak eta 2024an euskal sektore publikoak egindako lizitazioetan txertatutako ingurumen klausulen ezarpen maila azaltzen ditu.

©Ihobe, 2026eko Urtarrila

Argitaratzailea:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Eusko Jaurlaritza


Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua
48011 Bilbo


www.ihobe.eus

@ihobe_Eus

EUSKADIKO
EROSKETA ETA
KONTRATAZIO
BERDEAREN
2030EKO
PROGRAMA

2024KO JARRAIPEN- TXOSTENA





AURKIBIDEA

1.

Jarraipen txostenaren helburua eta metodologia

[6. orr.]

2.

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030eko Programa

[7. orr.]

3.

Programa gauzatzea: ekintzetan aurrera egitea eta aurrekontua

[10. orr.]

4.

Programaren inpaktua: emaitzaren adierazleak

[22. orr.]

5.

Ondorioak

[24. orr.]

6.

Eranskinak

[26. orr.]

1. JARRAIPEN- TXOSTENAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA

Euskadiko erosketara eta Kontratazio Berdearen 2030eko Programaren Jarraipen-Txostenaren xedea programaren bilakaera zehaztea eta 2030eko ezarritako helburuak lortzeko neurriak eta ekintzak iradokitzea da.

Arlo (A) eta Jarduketa Lerro (JL) bakoitzaren aurrerapen-maila neurtzeko **dimentsio anitzeko analisia egiten da hauen arabera:**

- Jarduketa-lerro bakoitzaren **ekintzen betearazpena**. Haztapen-ehuneko hauek erabili dira:

| Ekintzaren egoera | Aurrerapen-mailako ekintza-lerroaren ponderazioa |
|-------------------|--|
| Hasi gabe | %0 |
| Hasita | %25 |
| Aurreratuta | %50 |
| Oso aurreratuta | %75 |
| Amaituta | %100 |
| Baztertuta | Ez da haztatu |

- Aurrekontuaren **finantza-betearazpena**.
- Adierazle estrategikoen** bidez lortutako **emaitzak**. Balorazio-irizpide hauek erabili dira:

| Betetze mailaren balorazioa | |
|-----------------------------|--|
| | Eskuragarri dagoen azken urteko balioak ez badu helburu gisa ezarritako balioaren %75 gainditzen |
| | Eskuragarri dagoen azken urteko balioak helburu gisa ezarritako balioaren %75 gainditzen badu, baina balio horren %90era iristen ez bada |
| | Eskuragarri dagoen azken urteko balioa balio objektiboaren %90era iristen bada edo balio hori baino handiago bada |

2. EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN 2023EKO PROGRAMA

IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

IKUSPEGIA

Sektore publikoaren eta pribatuaren erosketaren potentziala modu bikainean eta merkatuarekin koordinatuta erabiltzea garapen sozioekonomiko jasangarria lortzeko eta, aldi berean, ingurumena, enpresa-lehiakortasuna eta Euskadiko herritarren ongizatea ahalik eta gehien babesteko.

PRINTZPIOAK

- Koherentzia.
- Gardentasuna.
- Baterako erantzukizuna.
- Lankidetzeta.
- Efizientzia eta berrikuntza.
- Sentsibilizazioa eta profesionalizazioa.

HELBURUAK

- Erosketa berdea esparru juridiko sendo batean ainguratzea eta ziurtatzea ingurumenari eta ekonomiari lotutako politika publikoak eta helburuak babesten direla.
- Erosketa berde publikoa euskal sektore publiko osoan finkatzea.
- Erosketa berde euskal sektore publikoan ere ezartzea.
- Merkatu berdea garatzea kalitatezko euskal eskaintzarekin, lehiakorra eta prestatua.
- Inpaktuak eta onurak ikusi eta jarraitzeko sistemak hobetzea.



HELBURU ESTRATEGIKOAK

2025EKO
HELBURUAK

2030EKO
HELBURUAK

| | | |
|--|--------------|--------------|
| Programari atxikitako entitate publikoen kopurua | 75 | 150 |
| Programari atxikitako entitate pribatuen kopurua (erakunde erosleak) | 20 | 50 |
| Garapen Jasangarriko Helburua: 12.7.1 adierazlea, ingurumen irizpideekin kontratatzeari buruzkoa (4.6tik) ¹ | 4.0 | 4.2 |
| Erosketa publiko berdearen ehunekoa Programan lehenetsitako kategorietan (eta kontratazio osoan) | %55 (%40) | %75 (%60) |

PROGRAMAREN LEHENTASUNEZKO KATEGORIAK

| | | | |
|---|--|---|---|
|  Obra zibila eta azpiegiturak |  Ehunak |  Energia elektrikoa |  Ibilgailu astunak |
|  Eraikuntza eta hirigintza |  Elikadura |  Argiteria publikoa |  Ekipo informatikoak |
|  Altzariak |  Lorezaintza / Berdeguneak |  Ibilgailu arinak |  Inprimatzeko ekipoak |

¹NBEk egindako "Erosketa Publiko Jasangarrien adierazlea indizea kalkulatzeko metodologian" oinarrituta kalkulatua, 2022ko uztaila

ARLOAK ETA JARDUKETA-LERROAK¹

A1. EAEko politikak hedatzeko ezinbesteko tresna gisa finkatzea erosketa eta kontratazio berdea

JL1. Euskal sektore osoaren esparru politiko eta juridikoan erosketa berdeak tresna operatibo gisa duen eginkizuna indartzea.

JL2. Ziurtatzea erosketa berdea lerrokatuta dagoela EAEko ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin.

A2. EAEko sektore publikoak eta pribatuak erosketa eta kontratazio berdearekin duten konpromisoan aurrera egitea

JL3. EAEko sektore publiko guztiak parte hartzea lortzea.

JL4. Euskal enpresak sentsibilizatzea eta mobilizatzea.

A3. Erosketa eta kontratazio berdea erakundeen egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea

JL5. Ezarpen sistematiko eta estrategikorako baliabideak ematea.

JL6. Eraginpeko langile guztiengan erosketaren eta kontratazioaren eginkizuna profesionalizatzea.

A4. Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea

JL7. Merkatuarekin elkarriketa eta lankidetzaren sustatzea, irtenbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko.

JL8. Enpresa hornitzaileak prestatzea, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen-eskariei aurre egin diezaieten.

A5. Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ezagutaraztea

JL9. Ingurumenarekiko jasangarria den erosketaren eta kontratazioaren ezarpena neurtzea eta onurak kalkulatzeko.

JL10. EAEn, Europan eta nazioartean egindako aurrerapenak eta lorpenak komunikatzea eta sustatzea.

¹Jarduketa-lerroak 21 ekintzetan sailkatzen dira.

3. PROGRAMA BETETZEA: AURRERAPENAK EKINTZETAN ETA AURREKONTUAN

JLI. Euskal sektore osoaren esparru politiko eta juridikoan erosketa berdeak tresna operatibo gisa duen eginkizuna indartzea


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: 2
- 2 ekintza bukatuta


FINANTZA-BETEARAZPENA

- 2021-2030eko aurrekontua: **19.900 €**
- 2021-2024an egindakoa: **6.333 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA




EMAITZAK

2024ko otsailaren 8an Eusko Jaurlaritzak Energia-trantsizioaren eta klima-aldaketaren 1/2024 Legea onetsi zuen eta artikulua espezifikoa bat jasotzen du erosketa publiko berderako inplikazioen inguruan: "57. artikulua. Erosketa publikoko produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono-aztarna".

ETORKIZUNEN LEHENTASUNAK

Eusko Jaurlaritzaren jarraibidearen antzeko mekanismoak bilatzea erosketa publiko berdea errazteko administrazio publikoaren gainerako mailetan.

Erosketa eta kontratazio publiko berdean produktuen eta zerbitzuen karbono-aztarnari buruzko obligazioak zabaltea. Obligazio horiek Energia-trantsizioaren eta klima-aldaketaren 1/2024 Legetik eratorritakoak dira.



JL2. Ziurtatzea erosketara berdea lerrotuta dagoela EAEko ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: 2
- Hasitako 1 ekintza
- 1 hasi gabe


FINANTZA-BETEARAZPENA

- 2021-2030eko aurrekontua: **143.750 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **26.313 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA



EMAITZAK

Merkatuarekin kontrastatu dira eta egin sortu obra hidraulikoetarako eta argiteria publikorako irizpideak.

ETORKIZUNEN LEHENTASUNAK

Ingurumen-irizpideak eguneratzea eta zeharkako gaiak sartzea, hala nola naturan oinarritutako irtenbideak.

JL3. EAEko sektore publiko guztiak parte hartzea lortzea


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: 2
- 2 ekintza bukatuta


ETORKIZUNEKO LEHENTASUNAK

- 2021-2030eko aurrekontua: **80.950 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **30.988 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA



EMAITZAK

Erosketa eta kontratazio publiko berdearen lantaldea promozionatzea toki-erakundeetarako eta Udalsarea 2030en bitartez.

Existitzen diren lantaldeak mantentzea eta dinamizatzea (obrak eta eraikuntza, gobernu-sailak eta atxikitako erakundeak).

ETORKIZUNEKO LEHENTASUNAK

Atxikitako erakundeentzat programak dituen zerbitzuen balioa gehitzea eta atxikipen gehiago erakartzeko programaren hedapen-sistemak hobetzea.

Existitzen diren lantaldeak mantentzeko baliabideak ziurtatzea.

JL4. Euskal enpresak sentsibilizatzea eta mobilizatzea


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: 1
- Hasitako 1 ekintza


ETORKIZUNEKO LEHENTASUNAK

- 2021-2030eko aurrekontua: **238.500 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **54.898 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA



EMAITZAK

Erosketa berdes sektore pribatuan aplikatzeko gida baten elaborazioa hastea.

ETORKIZUNEKO LEHENTASUNAK

Karbono-aztarnaren kalkuluaren erabilera sustatzea, Euskadiko enpresetan erosketa berdeko irizpideak txertatzeko bide gisa.

JL5. Ezarpen sistematiko eta estrategikorako baliabideak ematea.


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: **3**
- 1 ekintza oso aurreratuta
- 2 ekintza aurreratuta


FINANTZA-BETEARAZPENA

- 2021-2030eko aurrekontua: **232.300 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **54.898 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA




EMAITZAK

Erosketa berdeari edo pleguetan ingurumen-irizpideak sartzeari buruzko kontsultei erantzuteko zerbitzu-prestazioa (64 eskaerari erantzun zaie). Gainera, berrikuntza-proiektu bat martxan jarri da zerbitzu horren efizientzia hobetzeko adimen artifizialarekin (KIDE AI). Obretan bigarren mailako materialak kalkulatzeko tresna eguneratu da eta monografiko bat sortu da erosketa publiko berdean naturan oinarritutako irtenbideen inguruan (NBS, ingelesez).

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Ingurumen-zerbitzua indartzea eta praktika onak zabaltzea.

AI n oinarritutako tresnak pilotatzea ingurumen-efizientzia handitzeko.



JL6. Eraginpeko langile guztiengan erosketaren eta kontratazioaren eginkizuna profesionalizatzea.


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: 2
- 1 ekintza aurreratuta
- 1 hasi gabe


FINANTZA-BETEARAZPENA

- 2021-2030eko aurrekontua: **154.950 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **34.597 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA




EMAITZAK

9 bilera egin dira sektore publikoko teknikariek. Zehazki, bi bilera Eusko Jaur-laritzako sailekin, bilera bat toki-erakundeekin, bi bilera programari atxikitako erakundeekin, bi bilera obren talde eragilearekin eta bi bilera obren aurrera-pen-taldearekin.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

IVAPen esparruan ikastaroak egitea gutxienez jarraibidearen eraginpeko sailei zuzenduta.

Prestakuntza osagarri praktikoa eskaintzea programari atxikitako beste erakunde batzuei.



JL7. Merkatuarekin elkarriketa eta lankidetzaren sustatzea irtenbide berritzaileak, jasangarriak eta lehiakorragoak aurkitzeko.


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: 2
- Hasitako 2 ekintza


FINANTZA-BETEARRAZPENA

- 2021-2030eko aurrekontua: **159.000 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **36.599 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA



EMAITZAK

Argiteriako sektore pribatuko enprekin aurrez aurreko kontraste-saioa egitea eta euskal administrazio publikoek emandako iritziak aztertzea (Ihobek garatutako argiteria publikoko irizpideei buruz).

ETORKIZUNEN LEHENTASUNAK

Sektore pribatuarekin kontraste-prozesuak mantentzea erosketa eta kontratazio berdeko irizpideak asko aldatzen direnean.

JL8. Enpresa hornitzaileak prestatzea, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen-eskariari aurre egin diezaieten.


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: 2
- Hasitako 2 ekintza


FINANTZA-BETEARRAZPENA

- 2021-2030eko aurrekontua: **254.250 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **64.868 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA



EMAITZAK

Lanean dauden profesionalen zuzendutako prestakuntza-programa, Euskadiko ETE Zirkularrarekin eta Basque Circular Hubekin lankidetzan. Fokua jartzen da ingurumen-metriketan eta erosketa publiko berdeari aplikatzen zaizkion ziurtasun-girietan.

ETORKIZUNEN LEHENTASUNAK

Basque Circular Hubek lanean dauden profesionalentzat duen prestakuntza-programa mantentzea; gai garrantzitsuak dituen euskal enpresen posizionamendua hobetzeko erosketa berde publiko zein pribatuko prozesuetan. Autoprestakuntzako ikastaroak sartzeko, MOOC bezalakoak, prestakuntza errazago jasotzeko.

JL9. Ingurumenarekiko jasagarria den erosketaren eta kontratazioaren ezarpena neurtzea eta onurak kalkulatzeko


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: 2
- 1 ekintza oso aurreratuta
- 1 hasi gabe


FINANTZA-BETEARAZPENA

- 2021-2030eko aurrekontua: **191.000 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **49.287 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA




EMAITZAK

Pilotajeak bukatzea erosketaren publiko berdeari lotutako ingurumen-onurak kalkulatzeko, 2023an hasi zirenak. Pilotaje horren emaitzen arabera, planteatutako metodologia konplexuegia da eskala handian ezartzeko, kasuistika ugari baitaude.

ETORKIZUNEN LEHENTASUNAK

Praktika eta irtenbide onak identifikatzea onurak neurtzeko sistema efizientea ezartzeko eta ezarpena planifikatzeko.



JL10. EAEn, Europan eta nazioartean egindako aurrerapenak eta lorpenak komunikatzea eta sustatzea.


EKINTZAK BETETZEA

- Ekintza guztiak: **3**
- 2 ekintza aurreratuta
- Hasitako 1 ekintza


FINANTZA-BETEARAZPENA

- 2021-2030eko aurrekontua: **115.400 €**
- 2021-2024an erabilitakoa: **29,9865 €**

AURRERAPEN-MAILA



AURRERAPEN-MAILA



EMAITZAK

2 joera-txosten argitaratu dira eta erosketarako publiko berdeko praktika onak gehitu dira.

ICLEI sarean (Local Governments for Sustainability) parte hartzea: Procura + 2024 hitzaldia Lisboan eta erosketa publiko berdearen tailer bat Munduko Bankuaren erosketa publikoaren talderako.

ETORKIZUNEN LEHENTASUNAK


Berrikuspen-jardunaldi baten antolaketa.

Joera-txostenak eta praktika onak buruzkoak argitaratzen jarraitzea.


Euskadik parte hartzen jarraitzea erosketa publikoko nazioarteko foroetan, hala nola Procura mintegian edo erosketa publiko ekologikoaren nazioarteko kongresuan, praktika onak identifikatzeko eta trebetasunak hobetzeko.

| EKINTZEN JARRAIPENA | |
|----------------------|----|
| Hasi gabe | 2 |
| Hasita | 5 |
| Aurreratuta | 8 |
| Oso aurreratuta | 2 |
| Amaituta | 4 |
| Bertan behera utzita | 0 |
| Total | 21 |

EKINTZEN EGOERA




2030EKO EKINTZEN AURRERAPEN-MAILA



Erosketa eta kontratazio berdearen programako 21 ekintzetatik 19 hasita daude. Ez dira hasi kontratazioan inplikaturako langile berrien integrazioarako eskuliburueterako materiala garatzeko lanak (12. ekintza), ezta ere onuren kalkulua ezartzearekin lotutakoak (18. ekintza).


Ekintzen aurrerapen-maila %50ekoa da.

Ekintzen aurrerapen-maila arloen (A) eta jarduketeta-lerroen (JL) arabera




| Urtea | Planaren aurrekontua | Erabilitako aurrekontua | Aurrekontuaren betetze-maila |
|-------------------|----------------------|-------------------------|------------------------------|
| 2021 | 200.000 € | 133.652 € | 67% |
| 2022 | 175.000 € | 120.111€ | 69% |
| 2023 | 175.000 € | 63.276 € | 36% |
| 2024 | 175.000 € | 71.608 € | 41 % |
| Guztira 2021-2024 | 550.000 € | 388.647 € | 41% |
| Guztira 2021-2030 | 1.590.000 € | 388.647 € | 24% |

2030EKO FINANTZA-BETEARAZPENAREN AURRERAPEN-MAILA



2030eko programaren aurrekontuaren finantza-erabileraren aurrerapen-maila %24koa izan da.


Finantza-betearazpenaren aurrerapen-maila arloen eta jardura-lerroen arabera



4. PROGRAMAREN INPAKTUA: EMAITZAREN ADIERAZLEAK

| | BALIOA 2024 | HELBURUA 2025 | BETETZE- MAILA |
|---|----------------|------------------|-------------------|
| Programari atxikitako erakunde-kopurua | | | |
| Erakunde publikoen kopurua | 39 | 75 | %52 |
| Erakunde pribatuen kopurua (erakunde erosleak) | 0 | 20 | %0 |
| Garapen jasangarriko helburua: 12.7.1 adierazlea | | | |
| 4.6ren gaineko balioa, ingurumen-irizpideekin egiten diren kontratazioei buruz ¹ | 4,0 | 4,0 | >%100 |
| Programan lehenetsitako kategorietan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa | | | |
| Lizitazio-kopuruaren ehunekoa | %56 | %55 | >%100 |
| Ekonomia-bolumenaren ehunekoa | %65 | %55 | >%100 |
| Kontratazio osoan egindako erosketa publiko berdearen ehunekoa | | | |
| Lizitazio-kopuruaren ehunekoa | %47 | %40 | >%100 |
| Ekonomia-bolumenaren ehunekoa | %48 | %40 | >%100 |

¹ NBek 2022ko uztailean egin zuen "Erosketa Publiko Jasangarrien adierazlea kalkulatzeko metodologian" oinarrituta kalkulaturakoa.



5. ONDORIOAK

EKINTZAK BETETZEA

- **Ondorio nagusiak**

Programaren ekintza-planen aurrerapen-maila orokorra egokia da 2030eko helburuak betetzeko, salbuetsiz sektore pribatuaren atxikipenak; horietan ez da aurrerapenik gertatu.

Nabarmenki indartu da erosketa berdearen esparru politikoa eta juridikoa eta erosketa eta kontratazio berdeari lotutako aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusgai egotea sustatu da.

Sektore pribatua trakzio gisa inplikatzeko lortzeko ekintzen aurrerapen-maila txikiagoa izan da.

- **Datozen urteetarako lehentasunak**

1/2023 jarraibidearen betetze-maila ebaluatzea eta **Energia-trantsizioaren eta klima-aldaketaren 1/2024 Legearen** obligazioak hedatzea.

Ingurumen-irizpideak eguneratzea eta ingurumen-zerbitzua indartzea.

Programaren hedapen-sistemak hobetzea **atxikipen gehiago erakartzeko.**

Sektore pribatuari zuzendutako informazio- eta prestakuntza-ekintzak egitea eta irizpideak eguneratzeko prozesuetan inplikatzeko.

Erosketa publiko berdearen **ingurumen-onurak ebaluatzeko sistema ezartzeko** aurrerapausoak ematea.

Euskadik parte hartzen jarraitzea erosketa berdeko nazioarteko foroetan.



PROGRAMAREN AURREKONTUA

- **Ondorio nagusiak**

Ekintzen aurrerapen-maila egokia da **eta aurrekontu-betearazpena baxua da**.

Baliabideak nagusiki erosketa eta kontratazio berdea sistematikoki eta estrategikoki ezartzeko erabili dira. Horretarako, irizpide berriak garatu dira eta pleguetan ingurumena txertatzen lagundu da. Gainera, euskal enpresak prestatu eta mobilizatu dira.

Emitza garrantzitsuak lortu dira jarduketa-lerro ia guztietan, **salbu programara euskal enpresa pribatuak atxikitzean. Izan ere, ez da atxikipen-es-parrurik ezarri.**

- **Datozen urteetarako lehentasunak**

Baliabideak berrikustea eta berriro bideratzea aurrerapen-maila eta inpaktu-emitza gutxiago lortu den jarduketa-lerroetara eta ekintzan zentratzea: hau da, pleguetan ingurumen-irizpideak benetan gehitzea.

Eusko Jaurlaritzaren beste sailen inplikazio ekonomikoa lortzea erosketa eta kontratazio berdea sustatzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Ondorio nagusiak**

Aurrerapena egokia da euskal sektore publikoko erakundeak atxikitzeari dagokionez, baina ez dugu lortu **sektore pribatua trakzio gisa inplikatzeko**.

Gaur egungo **erosketa eta kontratazio publikoaren ingurumen-maila altua da** eta 2025erako ezarritako ia helburu guztiak gainditzen ditu. Hala eta guztiz ere, **nabarmenki gutxitu da** programaren lehentasunezko kategorietan **ekonomia-bolumenaren ehunekoa**.

Ingurumen-klausula gehienak txertatu dira kontratuen baldintza berezietan.

Horretaz gain, gainditu egin da 12.7.1 Garapen Jasangarrirako Helbururako adierazlea (politika eta ekintza-plan jasangarrien aplikazio-maila eskuratze publikoetan).

- **Datozen urteetarako lehentasunak**

Sektore pribatua inplikatzeko erosketa berdearen trakzio gisa eta **programaren balioa indartzea** erakunde publiko gehiago atxiki daitezela.


Lehentasunezko kategorietan eta erakunde garrantzitsuekin lana indartzea, bereziki, kategoria horietan balio ekonomikoa handiagoa mobilizatzen dutenak. Horretarako, aukeratze-ekintzak egingo dira, hala nola prestakuntza, erosketa-irizpideak hobetzea kategoria horietan edo beste-lako tresnak, adibidez, pleguetan ingurumen-irizpideak gehitzea.

6. ERANSKINAK: EMAITZA-ADIERAZLEEN XEHETASUNA


PROGRAMARI ATXIKITAKO ERAKUNDE-KOPURUA

Durante este ejercicio, se han sumado al Programa de Compra y Contratación Pública Verde de Euskadi 2030, 2 nuevas entidades públicas, consiguiendo así **un total de 39 entidades adheridas** al programa en 2024. En cambio, no se ha sumado **ninguna empresa privada**, porque no existe marco para ello.

**BETETZE-MAILA:
ERAKUNDE PUBLIKOAK**




**BETETZE-MAILA:
ERAKUNDE PRIBATUAK**



GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUA: 12.7.1 ADIERAZLEA

Garapen Jasangarrirako Helburuaren 12.7.1 adierazlearen balioa (4.6 punturen gainean eta 2024rako eskuratze publikoen arloko ekintzarako politika eta plan jasangarrien aplikazio-mailari buruzkoa) 4,0¹ izan da. Horrek berdindu egiten du 2025erako ezarritako 4,0 balioa.

BETETZE-MAILA




¹ NBEk 2022ko uztailean egin zuen "Erosketa Publiko Jasangarrien adierazlea kalkulatzeko metodologian" oinarrituta kalkulaturakoa.



Euskal administrazioen erosketa publiko berdearen ehunekoari dagokionez, 2024an **ingurumen-maila oso altuak** lortu dira berriro ere bai lehentasunezko kategorietan, bai erosketa orokorretan ere. **2025erako ezarritako ia helburu guztiak lortu eta gainditu dira.**

PROGRAMAN LEHENETSITAKO KATEGORIETAN EGINDAKO EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN EHUNEKOA


**BETETZE-MAILA:
LIZITAZIO-KOPURUA**



**BETETZE-MAILA:
EKONOMIA-BOLUMENA**




KONTRATAZIO OSOAN EGINDAKO EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN EHUNEKOA



Euskadiko kontratazio-plataformak 2024rako emandako datuen arabera, kontratazio osoan erosketa publiko berdearen ehunekoa hau izan da: **%47 lizitazioetan eta %48 ekonomia-bolumenean.**

| | Lizitazioak, GUZTIRA | INGURUMEN- IRIZPIDEEKIN | Erosketa berdearen maila (%) |
|--------------------------|-------------------------|----------------------------|------------------------------------|
| Lizitazio-kopurua | 8.334 | 3.922 | %47 |
| Zenbateko ekonomikoa (€) | 3.702.645.112 | 1.782.512.038 | %48 |

| PRODUKTU-TALDEA | % erosketa berdea(lizitazio- kopurua) | Erosketa berdearen % (zenbatekotan, €) |
|------------------------------|--|---|
| Elikagaiak | %64,1 | %45,5 |
| Argiteria publikoa | %57,4 | %70,7 |
| Eraikuntza eta urbanizazioa | %56,0 | %59,5 |
| Energia elektrikoa | %100,0 | %100,0 |
| Inprimatze-ekipoak | %20,9 | %13,0 |
| Informatika-ekipoak | %41,4 | %16,8 |
| Lorezaintza/berdeguneak | %77,6 | %97,3 |
| Altzariak | %66,3 | %67,7 |
| Obra zibila eta azpiegiturak | %61,3 | %78,6 |
| Ehunak | %76,8 | %48,6 |
| Ibilgailu arinak | %70,7 | %96,1 |
| Ibilgailu astunak | %38,7 | %93,6 |




Energia, lorezaintza eta ehunak izan dira ingurumen-irizpide gehien txertatu dituzten **erosketa-kategoriak**.

Kontrara, **informatika- eta inprimatze-ekipoak** izan dira ingurumen-irizpide gutxien txertatu dituzten kategoriak.

| ERAKUNDE-MOTA | % erosкета berdea(lizitazio-kopurua) | Erosкета berdearen % (zenbatekotan, €) |
|--|--------------------------------------|--|
| Udala | %54,7 | %79,6 |
| Kuadrilla | %57,1 | %69,5 |
| Foru Aldundia | %60,8 | %76,6 |
| Eusko Jaurlaritza | %53,4 | %58,3 |
| Batzar Nagusiak (Aldundia) | %61,9 | %32,3 |
| Mankomunitatea | %77,2 | %91,7 |
| Beste bat - tokiko eremua | %63,5 | %60,9 |
| Beste bat - probintzia-eremua | %55,1 | %78,5 |
| Beste bat- eskualde-eremua | %66,0 | %74,5 |
| Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa | %27,5 | %21,2 |
| Foru-sektore publikoa | %50,7 | %41,3 |
| Tokiko sektore publikoa | %43,4 | %41,5 |





Ingurumen-irizpideak txertatu izanagatik nabarmentzen dira **mankomunitateak**.

| Pleguan aplikatzeko lekua | Ehunekoa |
|---------------------------------|----------|
| Baldintza bereziak | %78,0 |
| Adjudikazio-irizpideak | %16,4 |
| Gaitasun teknikoaren irizpideak | %1,2 |
| Beste batzuk | %4,4 |

Ingurumen-klausula guztien **%78** txertatu dira **baldintza berezietan** eta **%16,4** adjudikazio-irizpideetan.

| | Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioak | | Lizitazioak guztira | |
|---------------------------------|---|----------------|---------------------|----------------|
| | Lizitazio-kopurua | Zenbatekoa (€) | Lizitazio-kopurua | Zenbatekoa (€) |
| Euskal enpresen ehunekoa | %71,0 | %75,6 | %62,9 | %54,3 |

Euskal enpresak ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen %71ren adjudikaziodunak dira eta aurrekoek ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen ekonomia-bolumenaren %75,6 osatzen dute.

BESTELAKO JARRAIPEN-ADIERAZLEAK

| Adierazlea | Lortu nahi den balioa | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|--|-----------------------|------|------|------|------|
| Ekintza-planetako ekintzen betearazpen-maila | %100 | %7 | %25 | %38 | %49 |
| Mobilizazio/dinamizazio ekintzen kopurua | 3/ urtean | 3 | 3 | 4 | 9 |
| Prestakuntza ekintzen/ baliabideen kopurua | 4/ urtean | 5 | 4 | 4 | 0 |
| Ezagutarazpen ekintzen kopurua | 4/ urtean | 4 | 5 | 2 | 2 |

Mobilizazio-ekintzen kopuruaren helburuak zabal gainditu diren arren, ez da prestakuntza-ekintzarik egin eta ez da lortu aurreikusitako 4 bisualizazio-ekintzak egitea.



